



INFORMAZIO ORRIA

Ibilgailuen dohaintza

Nork aurkeztu behar du? (2017-12-30etik aurrera sortutako zerga egitateak)

1. **Ibilgailua jasotzen duen pertsonak**, baldin eta ohiko bizilekua **Gipuzkoan** badu sortzapen egunean (kontratua egiten denean).

Oro har, **Gipuzkoako araudia** aplikatuko da (3/1990 FA, urtarrilaren 11koa). Hala ere, **Estatuko araudia** aplikatuko da, eta ez Gipuzkoakoa, baldin eta ibilgailua jasotzen duenak ohiko bizilekua Gipuzkoan badu sortzapen egunean, baina zergaren sortzapen egunaren aurreko 5 urteetako denboraldian egun gehiago pasa baditu lurralde erkidean.

- *Zein autonomia-erkidegotako araudia aplikatu behar den zehazteko, kontuan izan behar da zein autonomia-erkidegotan igaro duen egunik gehien sortzapen egunaren aurreko 5 urteetako denboraldian, kalkulu horretarako Euskal Autonomia Erkidegoan igarotako egunak kontuan hartu gabe.*

2. Dohaintza jasotzen duenak **atzerrian** badu ohiko bizilekua, atalarekin kontsulta egin (943 113 000).

Zenbat egun daukazu aitortpena aurkezteko?

30 lanegun, dohaintza egin ondorengo egunetik aurrera.

Zein pauso egin behar dira?

1. Bildu itzazu ondoko agiriak:

- ❖ **671 eredua**, hemen eskura dezakezuna:
 - baimendutako estankoetan.
 - interneten: <https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/ogasuna/zergak/eredua/671> Helbide horretan zerga honi buruzko informazio guztia duzu baita dohaintza egiteko dokumentu pribatuaren eredu bat ere.
- ❖ **Dohaintza adierazten duen dokumentuaren jatorrizko alea eta kopia** (ibilgailuaren balioa jarri behar du).
- ❖ **Ibilgailua eman eta jasotzen dutenen Nortasun Agirien fotokopia.**
- ❖ **Fitxa teknikoaren eta zirkulazio baimenaren fotokopiak.**
- ❖ **Ahaidetasunaren justifikazio dokumentala** (hala nola, famili liburua). Ahaidetasun edo harremana 3. Taldekoa bada (lehengusu, koinatu/a, arrotza..), ez da beharrezkoa agiri hori aurkeztea.

2. Bete eredua jarraian adierazten den eran:

- ❖ **Subjektu pasiboa:** ibilgailua jasotzen duenaren datuak.
- ❖ **Eskualdatzailea:** ibilgailua ematen duenaren datuak.
- ❖ **Ondasun eta eskubideen benetako balioa:** ematen den ibilgailuaren balioa.
<http://www7.gipuzkoa.net/ogasunaNet/vehiculos/default.asp> helbidean eta arreta bulegoetan eskuragarri dago Aldundiak onartu duen foru agindua, garraiobideen balorazioa arautzen duena.
- ❖ **Ordaindu beharreko kuota:** 3/1990 Foru Arauan ezarritako eskalaren arabera kalkulatzen da, (lurralde erkideko araudia aplikatzen denean izan ezik).
- ❖ **Sinatu aitortpena.**

3. Eraitza ordaintzekoa bada, eraman 671 eredua banketxe edo aurrezki kutxa batera eta egin bertan ordainketa

4. Ekarri agiri guztiak gure bulegoetara